



Geografia eta Historia

EZAGUTU SAILA

DBHko 3. mailarako Geografia eta Historia liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

Fernando Abascal Altuzarra
Pedro Adiego Sancho
José M.^a Caballero Martínez
María Ángeles Fernández de Bartolomé
Rosa López Pérez
Juan Martín Martín
Ana Redondo del Río
Raquel Rubalcaba Bermejo
María Luisa Vázquez Sánchez
Javier Velilla Gil
Francisco Javier Zabaleta Estévez

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea Llona
David Ramírez Muriana
María Ángeles Fernández de Bartolomé
Raquel Rubalcaba Bermejo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo Uriarte
Lourdes Etxebarria Orella

Liburu honetako ariketak ezin dira inolara ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskema eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

Unitatea	Hasierako irakurketa	Jakin	Egiten jakin	Ba ote dakizu?
Geografiarako sarrera 8		• Geografoaren tresnak: mapak • Grafikoak • Beste tresna batzuk	• Leku bat mapan aurkitzea • Grafikoak interpretatzea • Satelite bidezko bi hirudi konparatzea	
1 Munduko estatuak 14		1. Gaur egungo Estatuak 2. Estatuak antolaketa politikoaren arabera 3. Estatuak lurralde-antolaketaren arabera 4. Estatuaren arteko lankidetzak 5. Estatuaren arteko gatazkak 6. Lankidetzaren adibide bat: EB 7. EB gaur eta etorkizuneko erronkak 8. Espainiar Estatuak 9. Autonomia erkidegoak 10. Euskal Autonomia Erkidegoa		
2 Mundua ekonomia globalizatua 42		1. Ekonomia-jarduera 2. Ekonomia-eragileak eta ekoizpen-faktoreak 3. Gaur egungo ekonomia: globalizazioa 4. Zer faktorek bultzatzen dute globalizazioa? 5. Globalizazioaren ondorioak 6. Aberastasunaren banaketa desorekatua munduan 7. Goraka ari diren ekonomiak 8. Potentzia tradizionalen gainbehera 9. Lanaren erronkak mundu globalean		
3 Hiri-eremua 64	Ba al dago hiri iraunkorrik?	1. Hiria: funtzioak eta egitura 2. Hiri-eremuaren antolaketa 3. Hiritartze prozesua 4. Munduko hiri-sarea 5. Hirien erronka handiak 6. Espainiako hiriak	• Hiri-eremua aztertu, plano bat baliatuz • Hirien kokapena aztertu	• Hiri barreiatuaren ondorioak • Hilerrri batean bizitzea
4 Lehen sektorea 84	Nolakoa da munduko laranja-ekoizpena?	1. Lehen sektorea gaur egun 2. Nekazaritza-paisaia 3. Nekazaritza-paisaiaren giza elementuak 4. Eskualde garatuak nekazaritza 5. Garatzen ari diren eskualdeetako nekazaritza 6. Abeltzaintza 7. Arrantza 8. Espainiako lehen sektorea 9. Espainiako nekazaritza-paisaiak 10. Euskadiko lehen sektorea	• Nekazaritza-lurraren erabilerei buruzko mapamundia interpretatu	• Laborantza-teknika aurreratuak
5 Meatzaritza, energia eta industria 114	Zergatik dira estrategikoak baliabide arraroak?	1. Natura-baliabideen ustiaketa: meatzaritza 2. Energia iturriak 3. Energia berriztaezinak 4. Energia berriztagarriak 5. Industriaren jaiotza eta garapena 6. Gaurko industria-sistemaren ezaugarriak 7. Industriak eraikitze faktore berriak 8. Deslokalizazio prozesua 9. Potentzia industrialak 10. Meatzaritza, energia eta industria Espainian 11. Meatzaritza, energia eta industria Euskadin	• Energia ekoizle eta energia kontsumitzaile nagusiak diren eremuen mapa bat interpretatzea • Paisaia industrial bat aztertzea	• LPEEa • Elektrizitate-ekoizpena
6 Zerbitzuak 144	Iparraldeko itsas igarobidea bideragarria al da?	1. Zerbitzuen baitako jarduerak 2. Merkataritza: faktoreak eta motak 3. Mundu-merkataritza polarizatu bat 4. Garraioa: funtzioak eta sareak 5. Lurreko garraioa 6. Itsas garraioa 7. Aireko garraioa 8. Turismoa 9. Nazioarteko turismo-mugimenduak 10. Beste zerbitzu batzuk 11. Merkataritza eta garraioa Espainian 12. Turismoa eta beste zerbitzu batzuk Espainian 13. Zerbitzuen sektorea Euskadin	• Alderatu bi garaitako merkataritza-ardatzak • Aztertu garraio sarearen irisgarritasuna • Komentatu turismoaren bilakaerari buruzko aurreikuspen bat	• Burtsa, finantza-merkatu nagusia

Ikasi	Amaierako ataza	Pentsamoldeak	Konprometituak	Lan kooperatiboa
• <i>Slumsak</i>	• Kasu bat. Megahiri baten hazkundera: Lagos (Nigeria)		Hirietako marjinaltasuna	Mundua satellite batetik
	• Teknika. Mapa topografiko bat interpretatu	Analisi etiko eta morala. Zergatik kexatzen dira kafe-hazleak?	Landa-garapen iraunkorra lortzeko bidean	Arrantza negoziazio bat simulatu
• Erronka bat: industriaren eta ingurumenaren arteko oreka		Analisi zientifikoa. Zein da industria batentzat kokaleku egokiena?	Pobrezia energetikoarekin amaitzea	<i>Desertec</i> , eguzki-energia basamortuan
• Zerbitzu publikoen garrantzia • Turismo jasangarria	• Kasu bat. Azterku leku turistiko bat: Benidorm (Alacant)	Analisi zientifikoa. Garraio sare guztiak, berdinak al dira?	Nazioarteko bidezko merkataritza-harremanak	Bidaia bat Greziako Santorini uhartera

Unitatea	Hasierako irakurketa	Jakin	Egiten jakin	Ba ote dakizu?
7 Garapenaren erronka 176	Hezkuntza eskubide unibertsala al da praktikan?	1. Herrialdeak, haien garapen-mailaren arabera 2. Atzerapen ekonomikoaren kausak 3. Muturreko pobrezia eta gosea 4. Osasun- eta ongizate- desberdintasunak 5. Ekonomia-desberdintasunak 6. Gizarte-desberdintasunak 7. Nola aurrera egin garapenean 8. Pobrezia eta garapena Espainian	• Herrialde bat sailkatzea haren giza garapenaren arabera	• Ume soldaduak
8 Ingurumenaren iraunkortasuna 198	Sor al ditzake ondorio globalak tokiko erabaki batek?	1. Ingurumenaren narriadura eta Kontzientzia berdearen jaiotza 2. Kutsadura atmosferikoa eta klima-aldaketa 3. Ura: urritasuna eta kutsadura 4. Deforestazioa 5. Biodibertsitatearen galera 6. Lurraren degradazioa	• Aztarna ekologikoak alderatzea	• Espainia: ur kontsumo altua
Geografiako IKT proiektua 216	Hotel batentzat kokalekua aukeratzea			
Historiarako sarrera 220		• Zer da historia? • Historiaren aroak	• Aro Modernoaren hasierako mundu-mapa interpretatzea	• Historiaren zientzia laguntzaileak
9 Aro Modernoa, aro berri bat 224	Nola frogatu zen Lurra esferikoa dela?	1. Esplorazio garaia 2. Portugalen esplorazioak 3. Gaztelaren esplorazioak 4. Kolonaurreko Amerika 5. Gizarte- eta ekonomia-aldaketak 6. Euskal merkataritza	• Tenochtitlánen birsorkuntza historikoa interpretatzea • Biztanleria-grafiko bat aztertzea	• Marco Polo eta Ekialdea • Itsasoko arriskuak
10 Pentsamolde berriak: Errenazimentua eta Erreforma 246	Leonardo da Vinci jeinu bat izan al zen?	1. Humanismoa, pentsamolde berria 2. Zientziaren eta artearen ikuskera berria 3. <i>Quattrocento</i>a 4. <i>Cinquecento</i>a 5. Errenazimentuaren hedapena 6. Errenazimentua Euskadin 7. Erlijio-aldaketak: Erreforma 8. Kontraerreforma	• Fitxa biografiko bat egitea • Errenazimentuko hiri bat ezagutzea: Florentzia • Berrugueteren eskultura bat aztertzea	• Erasmo Rotterdamgoa • Tomas Moro • Greco • Anglikanismoa • Jesusen Lagundiaren fundatzailea
11 Espainiar Inperioaren sorrera 270	Nola borrokatzen ziren Espainiako tertzioak?	1. Estatu modernoaren jaiotza 2. Errege-erregina <i>katalikoen</i> erregealdia 3. Espainiar Inperioa: barne arazoak 4. Inperioaren antolaketa 5. Kanpo-arazoak 6. Amerikaren konkista 7. Amerikako lurraldeen antolaketa 8. Euskal foru-erregimena	• Mapa politiko bat interpretatzea • Karlos V.aren familia-zuhaitz bat interpretatzea • Espainiar Inperioaren mapa aztertzea • Ekonomia-grafiko batetik ondorioak ateratzea	• Antonio Pérez idazkariaren kasua • Armada garaiezin bat? • Indietako ontzidiak
12 Barroko garaiko Europa 298	Versailles jauregi bat baino ez al zen?	1. Krisi garai bat 2. Monarkia hispanikoaren gainbehera 3. Espainiaren Europako nagusigoaren amaiera 4. Frantzia, Europako lehen potentzia 5. Probintzia Batuen merkataritza-arrakasta 6. Parlamentarismoaren garaipena Ingalaterran 7. Iraultza zientifikoa 8. Arte barrokoa. Arkitektura eta urbanismoa 9. Eskultura barrokoa 10. Pintura barrokoa 11. Barrokoa Euskadin 12. Espainiako Urrezko Mendea	• Botere absolutuaren ikurrak identifikatzea • 1689ko Eskubideen Adierazpena interpretatzea • Rubensen margolan bat aztertzea	• Diego Velázquez
Historiako IKT proiektua 330	Dokumentu historikoak baliatuz txosten bat egitea			
Glosarioa 334				

Ikasi	Amaierako ataza	Pentsamoldeak	Konprometituak	Lan kooperatiboa
Aiton-amonen pentsioa: familien sostengua	Teknika. Bi herrialderen garapen-maila alderatzea: Espainia eta Kamerun Kasu bat. Afrika hasi al da hazten?	Analisi etiko eta morala. Zer neurtzen du Giniren indizeak?	Milurtekoko Garapen Helburuak	<i>Central do Brasil</i> , pobreziaren ikuspuntu bat
- Espainiako baso-suteak - Dibertsitate biologikoa EBean eta Espainian - Basamortutzearen mehatxua	Teknika. Ingurumenaren narriadura: Brasil		Kontsumo jasangarria	Sakurajima sumendiaren erupzioa
Bizitza karabela batean	Teknika. Kolonen egunerokoa interpretatzea Kasu bat. <i>Santa Mariaren</i> aztarnak	Analisi zientifikoa. Zer kontatzen du Holmul frisoak?	Aurkikuntzen garaiko ondarea	Machu Picchuren aurkikuntza gatazkatsua
Michelangelo	Teknika. Medici-Riccardi jauregia aztertzea	Analisi etiko eta morala. Gaur egungo erlijio-banaketa ulertzea	Errenazimentuaren eta Erreformaren ondarea	Uffizi Galeriarra bisita birtuala
- Ezkontza bidezko aliantzen garrantzia - Escorial, errege-gortea xvi. mendeko konkistatzaileak - Kolonietako bizitza	Teknika. Janzkien bidez gizartea ezagutzea. Kasu bat. Kotxinila: berriro ere modako tindagai bat?	Analisi etiko eta morala. Zergatik jaitsi zen biztanleria Indian?	Amerikaren konkistaren ondarea	Errege-tokietan barna ibilbide bat
- Lermako dukea xvii. mendeko aurrerapen zientifikoak eta asmakariak - Erroma, Barrokoaren hiriburua - Bernini, Barrokoko jeinu bat	Teknika. Eguneroko bizitza margolanen bidez ezagutzea	Analisi zientifikoa. Ba al dago piratarik gaur egun?	Barrokoaren garaiko ondarea	<i>Zalameako alkatearen</i> antzezpena

Liburuaren eskema


Liburua 12 unitatetan dago antolatuta. Unitate bakoitzeko atalen helburua ikasleen gaitasunak garatzea da.

Hasierako orrialde bikoitza: unitatearen aurkezpena eta IRAKURTZEKO GAITASUNAREN lanketa.

Unitateko edukiak zehazten dira (**Jakin** eta **Egiten jakin**).

Geure buruari galdezka atalak unitatea hasten du geografia edo historiarekin zer ikusia duen galdera edo enigma batekin.

Interpretatu irudia atalean proposatzen diren jarduerak testuak eta irudiak irakurtzeko gaitasuna ebaluatzen dute.



Infografia handi batek unitatearen sarrera lanak egiten ditu, ikaslea motibatuz.

Nola dakigu? atalak geografo eta historialariek erabiltzen dituzten tresna eta iturrien berri ematen du.


Orrialde edukidunak: JAKIN eta EGITEN JAKIN, osotasun integratua. Bai edukiak, bai horien aplikazioa aldi berean lantzen dira, jakintza sakonagoa lortzeko.

Informazio-testua era argi eta egituratua ematen da.

Ba ote dakizu? atalean zailtasun handiagoko edukiak biltzen dira, eta adibide eta kasuak deskribatzen.

Gogoan izan atalak kontzeptu zailenak argitzen ditu.

Ikasi atalean orrialdeko edukiarekin zer ikusia duten ikerketa txikiak proposatzen dira.



Egiten jakin atala orrialdeko edukiarekin zer ikusia duten teknikaz aritzen da.


Ikasteko gakoak atalean orrialde bikoitzeko funtsezko edukiak biltzen dira. **Egin gogoeta** jardura batekin amaitzen dira, gogoeta sakona eskatzen dutenak.

Gaitasunak jardura guztietan lantzen dira. Izenburuek eta ikonoek ematen dute landuko den gaitasunaren berri.

AMAIERAKO JARDUERAK: IKASTEN IKASTEKO era praktiko bat.

Ideia nagusien **laburpen** ariketa bat proposatuko da unitate gutzietan.

Jarduerak hainbat **mailatan** sailkatzen dira ulertzeko errazagoak izan daitezten. Irudien bidez adierazten da jardura bakoitzaren zailtasuna: oinarritzkoa, aurreratua, bikaina.



Geografian, **Konprometituak** atalak aurre egin behar diegun planetaren arazo nagusiak aztertzen ditu. Historian, iraganeko ondareaz gogoeta egiten da.

GAITASUNEN ARABERAKO JARDUERAK: ikasitako guztia testuinguru errealetan erabiltzea.
Geografia eta historiako oinarrizko teknikak erabiltzea, kasu praktikoak ebaztea, arazo zientifikoak aztertzea, iritzi kritikoa...

Geografia eta historiako funtsezko **teknikak** erabiltzea.

Pentsamoldeak atalean hauek lantzen dira: azterketa zientifikoa, arrazoiketa matematikoa, azterketa etikoa eta pentsamendu sortzailea.

GIZARTE-GAITASUNAK

20. APLIKATU TEKNIKA BAT Kolonien egunerokoa interpretatzeko

Kristorikaren errotak argia izan daiteke, baina zera kontatu du? Eguneroko biziaren gainean, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean.

20. Aurkitu biziaren irudiak, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean.

21. Santa Maria ontzaren berri

Amerikara atera zen lehenengo ontzia, baina zera kontatu du? Eguneroko biziaren gainean, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean.

22. Machu Picchu

Machu Picchu, baina zera kontatu du? Eguneroko biziaren gainean, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean.

PENTSATZEKO MODUAK

21. ANALISI ZIENTIFIKOA. Zer kontatzen du Machu Picchu?

21. Machu Picchu, baina zera kontatu du? Eguneroko biziaren gainean, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean.

22. Machu Picchu

Machu Picchu, baina zera kontatu du? Eguneroko biziaren gainean, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean.

LAN KOOPERATIBOA

23. Machu Picchu

23. Machu Picchu, baina zera kontatu du? Eguneroko biziaren gainean, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean.

24. Machu Picchu

24. Machu Picchu, baina zera kontatu du? Eguneroko biziaren gainean, baina biziaren gainean. Cieza de Leonen deskribatzen duen biziaren irudiak, baina biziaren gainean.

Kasu praktikoak oinarri hartuta, gogoeta egitea, eta kasu horiek baloratu eta ebaztea. .

Unitate bakoitza **lan kooperatiboa** atalarekin amaitzen da. Geografia eta historia era kooperatiboan eta ludikoan lantzeko jarduerak proposatzen dira atal horretan.

IKT PROIEKTUAK. Ikasleari oinarrizko zantzuak ematen zaizkio geografien eta historiagileen metodo zientifikoari buruz: horretarako **ikerketa-lan** bat proposatzen da geografia eta historia blokeen amaieran.

Liburuaren amaieran **Glosario** bat dago eta **Atlas** bat du lagungarri.

Oinarrizko gaitasunak

Liburuan zehar, HEZIBERRiren araberako oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

Arloko gaitasunak

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna
- Matematikarako gaitasuna
- Zientziarako gaitasuna
- Teknologiarako gaitasuna
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- Arterako gaitasuna
- Mugimendurako gaitasuna

Zehar-gaitasunak

- Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako gaitasuna
- Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna
- Izaten ikasteko gaitasuna

3

Hiri-eremua

JAKIN

- Hiria eta hiri-eremua.
- Hiritartze-prozesua.
- Munduko hiri-sarea.
- Hirietako erronka handiak.
- Espainiako hiriak.

EGITEN JAKIN

- Hiri-eremua aztertu, plano bat baliatuz.
- Hirien kokapena aztertu.
- Megahiri baten hazkundera aztertu.
- Worldview ikustailearekin lan egin.

GEURE BURUARI GALDEZKA. Ba al dago hiri iraunkorrik?

Oslo Europako hiri aberatsenetako bat da, eta Norvegiako jendetzatuena. 600.000 biztanle bizi dira bertan, eta milioi erditik gora metropoli-barrutian.

Hiriaren helburua da munduko hiri iraunkorrena izatea, baita ingurumena gehien errespetatzen duen hiria izatea ere. Horretarako, naturaren ahalmenarekin bat datorren hazkunde ekonomikoa, soziala eta kulturala planteatzen du.

Geltoki zentrala



Hiri berdeago bat

Osloren azaleraren (454 km²) bi heren (307 km²) baso eta ur-laster babestuz beteta daude. Herritarren % 95ek berdegune bat du etxetik 300 metro baino gutxiagora.

Osloko biodibertsitatea babestuko du: ez du sartuko espezie inbadi-tzailerik, berdeguneak sortuko ditu, baita gune urdinak ere (ibaiak, errekek, etab.), eta naturaguneak zainduko ditu.





• Hiri garbiago bat

Hiriko garbitasuna areagotuko du: zabor kopurua murriztuko du, deskutsatu beharreko hiriko lurzoruak deskutsatuko ditu, eta birziklapen-maila handituko du.



• Kutsadura gutxiago duen hiri bat

2030ean, % 50ean murriztuko ditu berotegi-efektuko gasak; 2020an, gasolio-berogailuen galdarak kenduko ditu; eta auto elektrikoen erabilera bultzatuko du.



Lorategi botanikoa

Opera



INTERPRETATU IRUDIA

- Irakurri BBCren orrialde hau: http://www.bbc.co.uk/mundo/noticias/2013/05/130506_escasez_basura_oslo_ig.shtml. Zer balio ekonomiko izan dezake zaborrak?
- Konparatu zure herria eta Oslo. Zure ustez, zer udal-politikak ezarri beharko lirateke zure herria iraunkorra izan dadin?
- Zer birziklatzen duzu? Nola?

NOLA DAKIGU?

Urtero, Europako Batzordeak Europako Hiriburu Berdearen Saria ematen dio hiriko ingurumena eta bizi-kalitatea hobetzeko ekimen onena ezartzen duen hiriri.

Sari horiek, beraz, jardunbide egokien eta adibide erabilgarrien katalogo baliagarri bat dira gainerako hirietarako.

- Ikertu ea Espainiako hiriren batek sari hori irabazi duen eta zergatik.

Zer da hiri bat?

Bi kontzeptu bereizi behar ditugu: hiri-eremua eta hiria. (1)



- **Hiri-eremu** deritzo 150 biztanle/km²-tik gorako biztanleria-dentsitatea duen lurraldeari. Lurralde horretan, nagusi dira lurzorua erabilera artifizialak, hala nola etxebizitzak, garraio-azpiegiturak, fabrikak, biltegiak eta saltokiak. Hiri-eremu batean, hiri bat baino gehiago egon daitezke, hain zuzen ere.
- **Hiri** deritzo hiri-eremuan dagoen herri mota bati. Herri mota hori beste herrietatik bereizten da, hau duelako:
 - **Biztanle kopuru handia**, eremu txikian bildua. Kopurua, berez, aldatu egiten da herrialdez herrialde. Espainian, esate baterako, hiritzat hartzen dira 10.000 biztanle baino gehiago dituzten herriak.
 - **Lurzorua erabilera artifizialak nagusi dira.** Horregatik, biztanleen oso ehuneko txiki batek soilik egiten du lan nekazaritzan, eta erabilera naturalek —basoek, kasu— eremu txikia hartu ohi dute.
 - **Administrazio-estatutua «hiri» gisa.** Herri batek estatutu hori izaten du, hain zuzen ere, historian zehar hiritzat hartu delako.

Hiriaren funtzioak

Hirietan, milaka pertsona bizi dira; horregatik, **bizileku-funtzioa** da garrantzitsuen.

Horretaz gainera, bigarren eta hirugarren sektoreko jarduera gehienak hirietan egiten dira. Hori dela eta, hiriek **beste funtzio batzuk** betetzen dituzte:

- Merkataritza-funtzioa, tokian bertan eta nazioartean.
- Industria-funtzioa, oso garrantzitsua duela gutxi arte.
- Funtzio politikoa eta administratiboa, helburutzat duena hiria kudeatzea, udalaren bidez, edo eremu zabalagoak kudeatzea, hala nola probintzia (probintzia-hiriburuaren kasuan), eskualdeak (esaterako, autonomia-erkidegoetako hiriburuak), estatua (estatuko hiriburuak) edo zenbait herrialde (esaterako, Europar Batasuneko erakundeak kokatzen diren hiriak).
- Kultura-funtzioa, hirietan baitaude ikastetxe espezializatuak, unibertsitateak, museoak eta antzokiak, etab.
- Turismo-funtzioa: naturaguneak, kultura-eskaintza, hondartzak...
- Erlijio-funtzioa, hala nola Jerusalem eta Meka hirietan.



1. HIRI-EREMUA ETA HIRIA: VALLADOLID



1 INTERPRETATU IRUDIAK.

- Zeinek hartzen du leku gehien, hiriak ala hiri-eremuak?
- Zertarako erabiltzen da lurzorua hiri-eremuan?
- Zenbat leku hartzen dute hiriko berdeguneek?

Hiriaren barne-egitura

Funtzioak ez dira modu homogeneoan banatzen hiri-eremuan, eta zenbait zonalde bereiz ditzakegu, funtzio nagusiaren arabera:

- **Bizitegi-auzoak.** Bertan, nagusi dira etxebizitzak eta biztanleentzako oinarritzko zerbitzuak: eskolak, lehen mailako arretako osasun zentroak, janari-saltokiak, etab.
- **Merkataritza-guneak.** Kanpoaldean egoten dira, eta komunikazio-bideetatik gertu, kanpoaldeko lurzoruei onura ateratzeko; izan ere, lurzoru horiek merkeagoak izaten dira, eta erraz hel daiteke bertara.
- **Erdigunea edo CBD** (*Central Business District*). Bertan biltzen dira banku nagusien eta enpresa handien egoitzak, saltoki eksklusiboenak, abokatuen, aholkularien eta abarren bulegoak, eta hiriko erakunde garrantzitsuenak, hala nola udala. (2)
- **Garraiorako guneak,** hala nola tren-geltokiak, aireportuak eta abar. Garraibideen arteko lotuneak dira zonalde garrantzitsuenak.
- **Industrialdeak eta zerbitzu-eremuak.** Hiritik irteten diren errepideetan edo urrutiago egoten dira.
- Beste zonalde batzuk: esaterako, **hezkuntza- eta unibertsitate-eremuak** —hala nola unibertsitate-campusak eta museoak biltzen diren eremuak— eta **ospitale-guneak**.

Horretaz gainera, **Europako hiri zaharretan**, hiru zonalde bereizi ohi dira, historian zehar izan duten bilakaeraren arabera:

- **Erdigune historikoa edo alde zaharra.** Industria Iraultzak eragindako hiri-hazkunde handiaren aurretik hiriak hartzen zuen eremua da.

Kale estu eta irregularrak izan ohi ditu, hirigintza-plangintzarik ez zegoelako. Han egoten dira hiriko monumentu historiko nagusiak. Gune garrantzitsua da merkataritzarako eta CBD jardueretarako. Halaber, zenbait eraikuntza zahar izan ohi ditu, etxebizitza gisa erabiltzen direnak; horietako asko birgaitu egin dituzte.

- **Zabalgunetako auzoak.** XIX. mendean, auzoak eraiki zituzten etorbide zuhaitzun sortu berrien inguruan; hotz, **bulebarren** inguruan. Etorbide horiek hiri zaharretik irteten ziren. Auzo horiek planifikatu egin zituzten: kale zabalagoak dituzte, eta laukitan banatuta daude.

Garai horretako auzo batzuk gaur egun egoera txarrean daude, eraikuntzak eta garai batean zeuden industriak antzinakoak direlako. Beste batzuek berriz hartu dute balioa, bertan kokatu diren negozio-gune modernoek esker.

- **Kanpoaldea edo hiri inguruko zonaldea.** Hiriko eraikuntzen eratzun kanpokoena da, eta gaur egungo hazkunde-eremua. Han daude bizitegi-auzo berrienak (nagusiki 1960ko eta 1970eko urteetan eraikiak) eta merkataritzaguneak, industrialdeak, eraiki gabeko eremuak, etab.

Beste kontinente batzuetako hirietan, ezin dira zonalde horiek bereizi, haien historia oso ezberdina izan delako edo hiri berri samarrak direlako. Esaterako, Ipar Amerikako eta Ozeaniako hiri gehienak XIX. eta XX. mendeetan sortu ziren, hirigintza-plangintza zehatz bati jarraituz. CBD da erdigunea, eta, bertan, etxe orratzak dira nagusi.



2. Kuala Lumpurreko (Malaysia) CBD.



IKASTEKO GAKOAK

- Zer alde dago hiri-eremu baten eta hiri baten artean?
- Zerk bereizten du hiri bat gainerako herri motetatik?
- Zer funtzio ditu hiriak?
- Zer zonalde bereiz daitezke Europako hiri batean historiaren arabera?

PENTSATU. Antzina-antzinako hiri baten erdigune historikora joaten garenean, erdigunea sortu zen garaian bezala ikusten al dugu?



2 IKT. Erabili Google Maps edo Bing Maps Brasiliako (Brasil) hiri-paisaiaren berri izateko eta erantzun.

- Aspalduko edo duela gutxiko hiri bat al da? Ikertu.
- Modu planifikatuan garatu al da? Nola dakizu hori?
- Zonaldeak zedarritu ditzakezu funtzioaren arabera?

Hiri-eremuak hiru zonalde ditu: hirigunea, hiri inguruko gunea eta landa-eremu hiritartua. (3)

Hirigunea

Hirigunea da hiri-eremu baten **gune nagusia** —hots, haren elementu antolatzailea—, bertan biltzen baitira hauetako gehienak:

- Hiri-eremuk biztanleek erabiltzen dituzten zerbitzuak, hala nola unibertsitateak, saltoki espezializatuak eta maila handiko zerbitzuak (abokatu-langelak, aholkularitza-enpresak, etab.).
- Hiri-eremuan zehar banatutako ekonomia-jardueretan lan egiten duten pertsonetako askoren etxe-bizitzak.
- Hiri-eremu horretako pertsonen eta jardueren eragiten dieten erabakiak hartzen dituzten erakundeak, enpresak eta abar.

Hiri inguruko gunea

Hiri inguruko gunea hirigunearen inguruko eraztun zabal bat da; bertan, **metropoli-barruti** bat sor daiteke. Hiri inguruko gunean dauden herriek udaltxea dute, baina hirigunearen oso mende daude.

- Biztanleen zati batek hirigunean egiten du lan.
- Biztanleak hirigunera joaten dira zenbait zerbitzu baliatzeko: unibertsitateak, ospitaleak, antzokiak, etab.
- Bertan egoten dira, besteak beste, industriak, biltegiak eta merkataritzaguneak. Horiek hirigunearen mende daude, zenbait arrazoiengatik: hirigunean dagoelako enpresaren egoitza, hiriguneko enpresak kontratatatu behar dituztelako zerbitzu teknikoetarako eta mantentze-lanetarako, edo hiri horretarako produktuak edo zerbitzuak ekoizten dituztelako.

Landa-eremu hiritartua


Hiri inguruko gunearen inguruan dagoen lurraldea da. Tarteko eremu bat da; izan ere, **landa-eremua** izan arren, **hiriko biztanleen, jardueren eta bizimoduaren zabalgu** bat da. Oro har, komunikazio-bide nagusien inguruan antolatzen da.

Horren ondorioz, hiri-eremuan, biztanleak oso maiz mugitzen dira lanera joateko, zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko, etxera itzultzeko... Eremu horretan orobat zirkulatzen dute salgaiek, ideiek, zerbitzuek eta abarrek.



3 IKT. Kontsultatu helbide honetan Bilboko Udalaren informazio geografikoko sistema: <http://www.geobilbao.net/>.

- Ikusi nola integratzen den hiria hiri-eremuan.
- «Zirkulazioa» eta «Garraioa» geruzak aktibatuz gero, zer informazio lortzen duzu?
- Zer beste gauzatarako erabil dezakezu tresna informatiko hori?



3. Pisako (Italia) hiri-eremua.



IKASTEKO GAKOAK

- Zer zonaldek osatzen dute hiri-eremu?
- Zer eginkizun du hiriguneak hiri-eremuan?

PENTSATU. Zergatik esaten da mugikortasuna dela hiri-eremuaren ezaugarri nagusia? Zer mugitzen da? Zer eragozpen dakartza horrek?

Hiri barreiatua, eredu berri bat

Hiri barreiatu deritzo eremu hiritartu jarraitua eta trinkoa izan beharrean landa-eremuak eta hiri-eremuak tartekatuta dauzkan hiriari. (4) Hiriaren hazkunde-eremu berri bat da: landa-eremu hiritartuan auzoak sortuz gertatzen da hiritartzea.

Hiri mota hori zenbait faktorek bultzatuta garatzen da:

- Enpresa-jarduera batzuk hirigunetik kanpora eramatea, hiritik gertu dauden lekuetara.
- Errepide bidezko garraiobideen azpiegitura biziki garatzea eta garraiobide-sareak hobetzea.
- Familia-errentek gora egitea. Horri esker, familiakideek zenbait ibilgailu izan ditzakete, eta lantokitik, ikastetxetik, zerbitzu espezializatuetatik eta abarretatik urrunago bizi daitezke.
- Balio jakin batzuk garatzea: osasungarriagoztat jotzen da landa-eremuetan bizitzea, naturatik gertu.



4. Hazkunde barreiatua, Toledoko probintzian.

BA OTE DAKIZU?

Hiri barreiatuaren ondorioak

Hiri barreiatuaren garapenak zenbait ondorio ditu:

- **Lurzoruaren erabilera artifizialak areagotzen ditu**, eta naturaguneak beren horretan mantentzea zailtzen du.
- **Hiri mota kontsumitzaileago bat da**. Hauek dira eraikuntza bereizgarriak: etxebizitza familiabakarrak eta garaiera gutxiko blokeak —ur, berogailu eta abar gehiago kontsumitzen dute—.
- **Garraiobide-azpiegitura gehiago** garatzea dakar, eta maiz sortzen dira **auto-ilarak**.
- Udalek **kudeaketa-sistema konplexuagoak** behar dituzte (polizia-zerbitzuak, ur-hornidura...).



4 INTERPRETATU IRUDIA.

- Azaldu zergatik adierazten duen argazki honek hiri-hazkunde barreiatua.
- Zertarako erabiltzen da lurzorua biztanleria barreiatuko guneen inguruan?
- Nolakoa da hirigunearen eta eremu horien arteko komunikazioa?

Hiri-eremua aztertu, plano bat baliatuz

Plano bat herri baten edo herriko zati baten adierazpen eskematikoa da. Planoan, **eskalan** agertzen dira bide-sarea, eraikuntzak, berdeguneak, hiritartu gabeko gunek... Planoan agertzen diren ikurrak eta haien esanahia legendan jasotzen dira. (8)

Herri batean, zenbait motatako planoak ikus ditzakegu:

- **Plano irregularra.** Kaleek ez diote ordena bati jarraitzen, eta eraikuntzak hainbat tamainatakoak dira. Plano horrek adierazten du hiri-hazkundera **berez** gertatu dela. Antzinako hiriek plano hori izan ohi dute. (5)
- **Plano erregularra.** Kaleak zabalagoak izan ohi dira, trazadurak ordena geometrikoa izan ohi du (plano ortogonala edo laukitan banatua) eta eraikuntzek antzeko tamaina eta forma dute. Plano horrek adierazten du hazkundera **hirigintza-plan** bati jarraituz gertatu dela. Plano hori zabalguneean aurki dezakegu. (6)
- **Plano radiozentrikoa.** Kaleak erdiko puntu batetik irteten dira; normalean, plaza batetik. Beste kale garrantzitsu batzuek erdiko puntu hori inguratzen dute. Kaleak eta eraikuntzak modu erregularrean edo irregularrean egon daitezke antolatuta. Plano hori Erdi Aroko hirien bereizgarria da.

Planoaren eskala behar bezain handia bada, **hiri-sarea** ere azter dezakegu; hots, eraikuntzen antolamendua. Elkarrengandik oso gertu badaude —plano irregularrean bezala—, sarea **itxia** dela esaten dugu; eta eraikuntzen artean eremu libre zabalak badaude —kanpoaldeko urbanizazio berrietan bezala—, sarea **irekia** dela esaten dugu. (7)



5. Bartzelonako auzo gotikoa.



6. Bartzelonako zabalgunea



7. Bartzelonako kanpoaldea.

HONETARA EGIN

Hiri-eremuaren egitura

- 5 • Identifikatu hirigunea eta metropoli-barrutiko gunek Bartzelonako planoan.
- Nolakoa da hirigunearen eta gainerako hiri-eremuaren arteko komunikazioa?

Hirigunearen barne-egitura

- 6 • Erreparatu legendari. Hiriguneko zer zerbitzu erabiliko dituzte hiri-eremuko biztanleak?
- Identifikatu funtzioak: egoitza-funtzioa, kultura-funtzioa...
- Zer plano mota identifikatzen dituzu hirigunean?
- Zer zonalderi dagokio plano bakoitza?
- Nola azalduko zenituzke planoko ezberdintasun horiek?
- Erreparatu argazkiari eta esan zer zonaldetan den hiri-sarea itxia eta zer zonaldetan irekia.



8. BARTZELONAREN HIRI-EGITURA

Hiri-hazkundera

XX. mendearen hasieran, munduko biztanleriaren % 13 soilik bizi zen hirietan. Gaur egun, hirietan bizi da **biztanleriaren % 53tik gora**, eta, kalkuluen arabera, ehuneko hori % 70 inguru izango da 2050ean. (9)

Hiritartze-prozesuaren bidez, hiri-eremuetako biztanleriak gora egiten du, eta landa-biztanleriak behera.

Hiritartze-prozesua herrialde garatuenetan hasi zen, baina prozesu hori **gaur egun biziagoa da gutxiago garatutako herrialdeetan**.

Mende honen lehenengo hamarkadan, hirietako biztanleriak % 0,8 egin zuen gora herrialde aurreratuenean, eta % 2,8 atzeratuenean. Dena den, herrialde garatuena dira oraindik ere hiritartuenak.

Hiritartzearen beste ezaugarri bat da **megahiriaren gorakada**. Megahiriak 10 milioi biztanle baino gehiagoko hiri-aglomerazioak dira. 1975ean, bost bakarrik zeuden; gaur egun, hogeitik gora daude, eta baliteke 2025ean 30etik gora egotea —suspertzen eta garatzen ari diren herrialdeetan egongo bide dira gehienak—. Tokio Handia da munduko megahiri jendeztatuenak: 39 milioi biztanle ditu (metropoli-barrutia ere sartzen da Tokio Handian). (10)

Edonola ere, munduko hiritar gehienak hiri ertainetan eta txikietan bizi dira.

Herrialde garatuak


Herrialde garatuak XVIII. eta XIX. hasi ziren hiritartzen, oro har, industrializazio-prozesuarekin batera. Horregatik, gaur egun, herrialde horietan:

- Hirietan bizi diren biztanleen ehunekoak oso handiak dira; izan ere, herrialdearen **biztanleria** osoaren % 80tik gora bizi da hirietan.
- Hirietako biztanleen kopuruek gora egiten jarraitzen dute, baina suspertzen eta garatzen ari diren herrialdeetan baino geldoago.

Hiru **faktorek** azaltzen dute zergatik ari den handitzen herrialde garatuetako hirietako biztanleria:

- Nekazaritza-jarduerak hirietan egiten diren jarduerak baino errenta txikiagoak ematen dituzte, eta hirietan egiten diren jarduerak zerbitzu- eta enplegu-egonkortasun zabalagoa dute. Horregatik, landako biztanleek hirira emigratzen jarraitzen dute.
- Hirietako biztanleak landa-eremukoak baino gazteagoak dira; izan ere, landatik hirira emigratzen dutenak haurrak izateko adineko gazteak dira.
- Mundu global batean, hiriek ekonomia-gune gisa duten eginkizuna sendotu egin da: mundu-merkatuko ondareak eta zerbitzuek hirietan zirkulatzen dute.

9. HIRI-BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA



IKASTEKO GAKOAK

- Definitu: hiritartzea, megahiria.

PENTSATU. Non ari da hazten gehien hiri-biztanleria gaur egun? Nola azalduko zenuke hori?

EGITEN JAKIN

Hirien kokapena aztertu

Pertsonen bizirako eta ekonomia-jardueren garapenerako natura-baldintza (erliebea, klima...) egokiak dituzten lekuetan biltzen da biztanleria.

HONETARA EGIN

- 7 • Zein dira munduko metropoli-barruti handienak?
- Non daude hirietako gehienak, kostaldean ala barnealdean? Zer faktorek azal dezakete antolamendu hori?
- Zer alde on ditu eremu horien kokapenak?

Suspertzen eta garatzen ari diren herrialdeak

Herrialde horietan, **biztanleria osoaren % 46**tik gora bizi da hirietan. Herrialde garatuek baino geroago hasi dute hiritartze-prozesua, baina haien hazkunde kopuruek askogatik gainditzen dituzte herrialde garatuenak.

Hazkunde-erritmo bizi hori zenbait faktoreren ondorio da:

- Migrazio-korronte handiak gertatzen dira landatik hirietara, bizimodu hobea baten bila (soldata handiagoak, enplegu-eta zerbitzu-eskaintza zabalagoa...).
- Migrazioen ondorioz, hirietako biztanleria landakoa baino gazteago da, eta, hortaz, hazkunde natural handiagoa du.
- Gaur egun, herrialde garatuetako ekonomia-jarduera deskokatuak egiten dira herrialde horietako hiri askotan (fabrikak, telefono bidezko arreta-zentroak, etab.). Horrek enplegu eta aukera gehiago ekarri ditu.

JAKINGAI

Slumak

Urtero, milaka nekazarik landako herrixketako miseria atzean uzten dute, eta hiri handietara jotzen dute. Hobeto bizitzeko aukeraren bat aurkitzeko itxaropena dute.

Immigrante horietako askoren itxaropena berehala zapuzten da: ez dute lanik aurkitzen, eta hondakinekin txabola bat eraiki behar izaten dute *slum* batean. *Slumak* txabolaz betetako auzo handiak dira. Bertan, ez daude oinarritzko zerbitzuak, hala nola iturriko ura, estoldak, linea elektrikoak eta eskolak.




11. Kiberako Sluma, Nairobín (Kenia).




8 IKT. Sartu hemen: www.slumstories.org/es/ eta azaldu ikasgelan webgune horretako pasarteetako bat. Aurkitu lekua mapan.

10. MUNDUKO HIRI HANDIENAK



12. GARRAIO-NODOAK



9 INTERPRETATU MAPA.

- Ikertu zertan lan egiten duen FedEx enpresak.
- Zer hiri daude elkarri lotuta? Hiri globalak al dira?



- 10 IRAKURMENA. Irakurri Londres buruzko artikulu hau: http://cultura.elpais.com/cultura/2012/05/03/actualidad/1336044460_973616.html eta idatzi zer argudio ematen diren Londres hiri globala dela esateko.

Hiriek lurraldea antolatzen dute

Hiriek harremanak dituzte elkarrekin, eta **munduko hiri-sare** bat osatzen dute. Sare horrek antolatzen du, hein handi batean, bizia gure planetan.

- Garraio-sareek eraginkortasunez lotzen dituzte hiriak elkarrekin eta landa-eremuarekin. Dena den, komunikazioa urria eta kalitate txarrekoa da landako herri askoren artean. Hiriak, beraz, **garraio-sareen gune banatzaileak** bilakatu dira. (12)
- Hirietan egoten dira eskualdeko, nazioko eta nazioarteko administrazio-erakundeak eta enpresen egoitzak. Hirietan hartzen dira ekonomia- eta politika-arloko erabaki garrantzitsuenak. Horregatik dira **ekonomiaren eta politikaren guneak**.
- Informazioa zabaltzeko, hainbat komunikabide erabiltzen dira: telebista, prentsa idatzia, irratiak, Interneta... Komunikabide horiek kable-sareak, zuntz optikoa, antena-igorgailuak eta abar erabiltzen dituzte. Informazioa funtsezkoa da pertsonen eta enpresek erabakiak har ditzaten. Informazioa sortzen duten enpresak eta bestelako erakundeak hirietan egoten dira, batik bat. Horregatik, hiriak **informazioa zabaltzeko guneak** dira.
- Hirietan egoten dira ikerketarako eta garapenerako guneak: unibertsitateak, enpresen I+G+B guneak, etab. Hori dela eta, hiriak dira planetako **berrikuntza-gune** nagusiak, arlo guztietan, hala nola zientziaren, ekonomiaren, kulturaren eta bizimoduaren arloetan.

Hiri-sare hierarkizatu bat: hiri globalak

Munduko hiri-sarean, hiri guztiek ez dute garrantzi bera; badago **hierarkia** bat —hots, hirien garrantziaren ordena bat—, hirietan hartzen diren erabakien eta egiten diren jardueren arabera.

Munduko sare horren buru dira **hiri mundial edo global** direlakoak. (13) Hiri horietan hartzen diren erabakiek eta egiten diren jarduerak eragin ekonomikoak eta sozialak dituzte mundu osoan edo planetaren zati handi batean, behinik behin.

Hiri globaletan biltzen dira finantza-erakunde nagusien egoitzak (balio-burtsak, banku handiak...), estatuz gaindiko eta nazioarteko erakundeak (EB, NBE...), multinazional askoren egoitzak, botere eta eragin handiena duten komunikabide-enpresen egoitzak... Horrenbestez, hiriak mundu mailako finantza-, merkataritza-, kultura- eta informazio-fluxuen eta bestelako fluxuen gune dira.

Hiri horiek oso ondo daude komunikatuta elkarrekin, eta munduko hiri garrantzitsuenak dira.

New York, Londres, Paris, Tokio eta Hong Kong dira, gaur egun, hiri global nagusiak. Globalizat hartzen diren hiri guztiek ez dute botere eta eragin bera. (13)



13. HIRI GLOBALAK ETA SUSPERTZEN ARI DIREN HIRIAK

Hiri-sare nazionala

Herrialde baten muge barruan ere badago hierarkia bat hirien artean:

- Estatu-hiriburuak eta beren herrialdean lurraldean eragina duten hiriak **hiri handitzat edo metropoli nazionaltzat** hartzen dira. Bertan egoten dira zerbitzu espezializatuenak —hala nola gobernu-organoak eta estatuko administrazioak— eta enpresa handien erabaki-guneak.
- Herrialde batek metropoli nazional bat edo bi izan ohi ditu. Horietako batzuk orobat izaten dira hiri globalak.
- Maila bat beherago daude **eskualdeko hiri-guneak**. Herrialdeko eskualde bat izan ohi da haien eragin-eremua. Ondo komunikatuta egon ohi dira metropoli nazionalekin, baina metropoli nazionalak baino txikiagoak dira, eta ez dituzte hain zerbitzu espezializatuak eskaintzen.
- Beherago, **hiri txikiagoak** daude. Gertuko lurraldean soilik dute eragina.

HIRI GLOBALAK

Negozio-jarduerak	Tokio, New York, Londres, Hong Kong, Shanghai, Viena (kongresuak)
Giza kapitala	New York, Boston, Tokio, Sydney
Informazio-trukea	Paris, New York, Zurich, Stockholm
Kultura-esperientzia	Mosku (museoak), Londres, New York, Shanghai
Politika-jarduerak	Brusela, Washington, Geneva, New York

SUSPERTZEN ARI DIREN HIRI NAGUSIAK*

Negozio-jarduerak	Mexiko Handia, Lagos, Bogota, Casablanca, Nairobi
Giza kapitala	Karaxi, Lima, Buenos Aires, Chongqing, Bangkok, Istanbul
Berrikuntza	Lurmutur Hiria, Karaxi, Ho Chi Minh, Lima, Lagos

* Diru-sarrera txikiak eta ertainak dituzten herrialdeetako hiriak. Gaur egungo aurrerabide-indizeari eutsiz gero, munduko liderren mailara iritsiko dira, hamarkada batean edo bitan, ekonomia-jardueraren, giza kapitalaren eta berrikuntzaren adierazleetan.



11 INTERPRETATU MAPA ETA TAULAK.

- Non daude hiri global nagusiak, herrialde garatuetan ala garatzen ari diren herrialdeetan? Nola azalduko zenuke hori?
- Europar Batasunean, zer hiri global nabarmentzen dira? Zer alderditan?
- Erreparatu taulari. Zer hazkunde-faktore dituzte suspertzen ari diren herrialdeek? Azaldu nola lagundu diezaioketen faktore horiek garapenari.



IKASTEKO GAKOAK


- Azaldu zergatik diren hiriak garraiorako, berrikuntzarako, ekonomiarako, politikarako eta informazioa zabaltzeko guneak.
- Hiriek mundu mailako sare hierarkizatu bat osatzen dute. Zer esan nahi du horrek?
- Zer da hiri global bat? Eman bost adibide.

PENTSATU. Nola eragin eragin diezaioke herrialde bati eta haren biztanleei hiri globalik eta hiri global-ekin harremanak dituen hiri txikiagorik ez izateak?



- 14. Linfen (Txina).** Munduan kutsadura atmosferiko handien duen hiria da. Meatzaritza- eta industria-jarduera handiak eragiten du kutsadura. Biztanleen bizi-itxaropena herrialdeko gainerako biztanleena baino 10 urte txikiagoa da.

15. ZIRKULAZIOAREN DENTSITATEA BARTZELONAN



- 12 HERRITARTASUNERAKO HEZKUNTZA.** Zer egin dezakezu hiriko arazoak murrizten laguntzeko? Eman adibide zehatzak.

Hiriek arazo jakin batzuk dituzte, eta beharrezkoa da arazo horiei aurre egitea. Arazo horiek hiri-eremuaren ezaugarrietan dute jatorria: biztanleria-dentsitate handia, biztanleen mugikortasuna, garraiobideen erabilera handia, biztanleei ematen zaizkien zerbitzuen antolamendu konplexua, etab.

Arazo batzuek hirietako biztanle guztiei eragiten diete, baina beste batzuek gehiago eragiten diete biztanle jakin batzuei, non bizi diren.

Kutsadura atmosferikoa

Hirietan, berotegi-efektuko gas asko pilatzen dira, batez ere ibilgailuak eta berogailuak erabiltzeagatik; izan ere, ibilgailuek eta berogailuek erregai fosilak erabiltzen dituzte. **(14)** Hori dela eta:

- Hiriek aktiboki eragiten dute **berotze globala**. Gas mota horiek bide ematen diote Eguzkiaren energiari Lurrera argi eta bero forman iristeko, baina ez diote uzten atzera espaziora itzultzen, eta horrek berotegi baten antzeko efektua sortzen du.
- Besteak beste, horrelako gas gehiago egoteak azaltzen du **hiriko mikroklima edo «bero-uhartea»**. Fenomeno horrek hirietako tenperaturari egiten dio erreferentzia; izan ere, hirietan tenperatura handixeagoa izaten da inguruko hiritartu gabeko eremuetan baino. Aldea zenbait gradutakoa izan daiteke, eta haizerik eta hodeirik gabeko gauetan gertatzen da, batik bat. Fenomeno hori orobat eragiten dute eraikuntzarako erabiltzen diren materialek (hormigoia, asfaltoa...) eta eraikuntzek —garaia-goak direnez, beroa gordetzen dute—, baita berdegune eta ur-masa gutxiago egoteak ere —berdeguneek eta ur-masek giroa freskatzen dute—.

Zirkulazio-arazoak

Hiriek garraio-sare trinkoa dute, egunero gertatzen diren pertsona- eta salgai-fluxu handiak bideratzeko. **(15)** Horretarako, beharrezkoa da inbertsio handiak egitea bide-sarea eraikitzeko eta mantentzeko, baita zirkulazioa kudeatzeko sistema konplexuak eratze ere, eta lurzorua zati handi bat aparkalekuetarako eta garraio-azpiegituretarako erabiltzea.

Zirkulazio handiak beste ondorio batzuk ere baditu; besteak beste, joan-etorrietan denbora galtzea, auto-ilarak, ezbehar kopuru handia, energia-kontsumoa eta kutsadura atmosferikoa eta akustikoa.

Hondakinen kudeaketa

Hirietan, jende asko bizi da, eta asko kontsumitzen du. Hori dela eta, hirietan, hondakin kantitate handiak sortzen dira. Hondakin horiek oso kutsagarriak izan daitezke, eta horrenbestez, beharrezkoa da tratatzea. Ezinbestean sortu behar dira zaborte-egintza kontrolatuak, erraustegiak, birziklapen- eta konpost-fabrikak eta abar.

Dena den, gutxiago garatutako herrialdeetako hirietan, **zaborte-egintza ilegalak** daude. Zaborte-egintza horiek kutsatu egiten dute lurzorua, airea eta ura, eta hondakinak zuzenean joaten dira ibai eta itsasoetara.

Marjinaltasun-arazoak

Lurzoruaren prezioak eta, beraz, etxebizitzak aldatu egiten dira hiriko auzo batetik bestera, zenbait faktoreren ondorioz; besteak beste, nolakoa den eraikuntzen eta auzoaren kalitatea, ea badagoen berdegunerik eta oinarritzko zerbitzurik, ea ondo komunikatuta dagoen eta ea eragozpenak sortzen dituzten jarduerak egiten diren handik gertu (usain txarrak, zarrak...). Horren ondorioz, biztanleria errenta-mailaren arabera banatzen da.

Baliabide gutxien dituzten pertsonak hiriko auzo degradatuenetan bizi dira, edo erdigunetik urrun dauden auzoetan. Herrialde pobreen eta garatzen ari diren herrialdeen hiri jendetsuen kanpoaldean, txabola-auzo handiak sortu dira. Auzo horietan, oro har, ez daude oinarritzko zerbitzuak; esaterako, estolderia, iturriko ura eta argia. (16)

Horrenbestez, hiri-eremuan **gizarte-segregazioa** gertatzen da, eta **marjinaltasun-poltsak** ageri dira, gatazkatsuak izan ohi direnak (langabeziaren eta eskola-porrotaren indize altua, drogak, delinkuentzia...).

Hornidura eta hiriko beste arazo batzuk

Hiriek **baliabide asko kontsumitzen dituzte** (ura, energia, elikagaiak...). Gobernatzen dituztenek (Espainian, udalek) hornidura bermatu behar dute, ekonomia-jardueren, garraiobideen eta hiritarren premiak asetzeko. Hiritarrek, oro har, landa-eremuko biztanleek baino gehiago kontsumitzen dute.

Hiri bat kudeatzea ez da erraza, eta beharrezkoak dira azpiegitura handiak eta garestiak. Horregatik, hiriko beste arazoetako bat **finantzaketa-arazoak** dira. Finantzaketa-arazoak, hain zuzen, hiriak egiten dituen gastu ugarien ondorio dira. Hirietako gobernuek maiz egiten dituzte zor handiak.

Beste arazo batzuek zerikusia dute gai hauekin: hiri-**hazkundearen plangintzarekin**, hazkundera iraunkorra izan behar baitu; **higiezinaren espekulazioarekin**, etxebizitzaren prezioak neurritz kanpo handitzea baitakar, eta baliabide gutxiago dituzten pertsonen eragotzi egiten baitie etxe duin bat eskuratzea; eta hirietan elkarrekin bizi diren **kulturekiko errespetuarekin** eta **integrazioarekin**.



16. Favelak (txabolak), Brasilgo Rio de Janeiro hirian.

IKASTEKO GAKOAK

- Azaldu hauen esanahia: «berohartea», birziklapena, hiri-eremuko gizarte-segregazioa, marjinaltasun-poltsak.
- Zerrendatu hirien arazo nagusiak.
- Zer ondorio dituzte hiritarrentzat? Eta haien gobernuerentzat?

PENTSATU. Zer neurri har ditzateke udalek hirietako arazo nagusietako bakoitzari aurre egiteko?

BA OTE DAKIZU?

Hilerri batean bizitzea

Hildakoen Hiri Karioko (Egipto) beste auzo bat dela esan dezakegu; izan ere, besteak beste, tabernak, dendak, lantegiak eta eskolak ditu. Gutxi gorabehera, milioi bat pertsona bizi dira bertan. Leku horrek, ordea, badu berezitasun bat: hilerri bat da.

Hilobietako batzuek gelak eta lorategiak dituzte. Senitartekoek hildakoari berrogei dolu-egunetan lagun egiteko eraiki zituzten, hain zuzen ere, gela eta lorategi horiek.

Kairo hirian etxebizitza gutxi daudenez eskuragarri, ekonomia-baliabide gutxiko pertsona asko gela horietan jarri ziren bizitzen, jabeekin hitzarmen bat egin ostean. Jabeek edonoiz bisita ditzakete hildakoak, eta, horren truke, maizterrak mausoleoa zaintzeaz arduratzen dira.



Espainiako hiritartze-prozesua

Espainian, hiritartze-prozesua berandu hasi zen, motela izan zen eta zenbait etenaldi izan zituen. Industrializazio-prozesuarekin batera garatu zen, eta landa-exodoa eragin zuen.

Hiritartze-prozesu horretan, hiru etapa bereiz daitezke:

- **XIX. mendearen erdialdetik 1955era arte, prozesu motela izan zen.** Landako biztanleriak hiri gutxi batzuetara jo zuen: Bartzelonara, Bilbora, itsasertzeko euskal hirietara, Madrilera, Valentziara eta Zaragozara.
- **1955etik 1980ra arte, prozesua azkartu egin zen,** industrializazio-prozesuarekin batera. Espainiako biztanleriaren herenak landa-eremua utzi eta industria-garapena gertatzen ari zen hirietara emigratu zuen.

Etap horretan, hiri horietako biztanleria nabarmen handitu zen. Biztanleriak orobat jo zuen Galiziako itsasertzeko hirietara, Valladolidera, Asturiasko eta Kantabriako itsasertzeko hirietara, Iruñera, Logroñoren eta Zaragozaren arteko Ebro haraneko hirietara, Valentzia eta Alacant hiriak elkarri lotzen zituen errepideko hirietara, eta Sevilla-Cádiz-Huelva triangeluan dauden hiri batzuetara.

Etap horretan, halaber, **turismoa asko garatu** zen. Horregatik, biztanleriak orobat jo zuen Málaga-ra, Balear eta Kanaria uharteetara eta Girona eta Alacant arteko Mediterraneo itsasertzeko hirietara — hiri horietan bazeuden, halaber, industria-enpleguak —.

- **1980tik gaur egunera arte,** prozesua bestelakoa izan da:
 - Landatik hirirako migrazio-mugimenduek beren horretan jarraitu dute, baina lehen baino bolumen eta indar gutxiago dute.
 - Hiri handietako enpresek hiriaren kanpoaldera eramane dute beren ekoizpen-jardueren zati bat; zehazki, hiriarekin ondo komunikatuta dauden hiri inguruko eremuetara edo hiritik urrutiago dauden eremuetara. Horrek **metropoli-barrutien garapena** eta **herri barreiatuaren** eredia bultzatu du.

Espainiako hiri-sistema

Hiri-sistema diogunean, hainbat arrazoigatik elkarri lotuta dauden hiriei egiten diegu erreferentzia: administrazioagatik, funtzioengatik, ekonomiagatik, garraioagatik eta abarregatik. Espainiako hiri-sisteman, zenbait azpistema daude, eta horien barruan, hiriek oso harreman estuak dituzte. (17)




IKASTEKO GAKOAK

- Nolakoa izan zen Espainiako hiritartze-prozesua?
- Esan zein diren prozesuaren hiru etapak. Zer ezaugarri ditu bakoitzak?
- Nolakoa da Espainiako hiri-sistema?
- Azaldu Espainiako hiri-sareko hirien hierarkia.

PENTSATU. Zure ustez, non kokatzen da zure hiria edo zure herritik gertuen dagoen hiria Espainiako hiri-hierarkian? Zergatik?

HIRI-SISTEMA		
Azpistema	Hauek osatzen dute:	Erdigunea
Erdikoa	Erdigunetik gertu dauden Gaztela-Mantxako eta Gaztela eta Leongo hiriak. Valladolid nabarmentzen da, elkarri lotzen baititu Galiziako itsasertzeko azpistema eta Asturiaskoa.	Madril
EAE-Ebro harana	Inguruko eremuak. Kantabriako, EAEko, Nafarroako, Errioxako, Burgoseko, Soriako eta Aragoiko hiriak.	Bilbo-Zaragoza ardatza
Kataluniakoa	Katalunia eta Castelló probintziaren iparraldea.	Bartzelona
Levantekoa	Valentziako Erkidegoko eta Murtziako Eskualdeko itsasertza.	Valentzia
Hego-mendebaldekoa	Andaluziako mendebaldeko erdialdea, Extremaduraren hegoaldea, Ceuta eta Melilla.	Sevilla-Kordoba-Málaga triangelua
Balearretakoa	Balear uharteak.	Palma
Kanarietakoa	Kanaria uharteak.	Las Palmas Kanaria Handikoa, Santa Cruz Tenerifekoa
Galiziako itsas.	Kostalde atlantikoko hiriak.	Coruña-Vigo ardatza
Asturiaskoa	Gijón-Avilés-Oviedo triangelua.	Oviedo



17. ESPAINIAKO HIRI-SISTEMA

Hiri-hierarkia

Espainiako hirietan, hierarkia bat ezar dezakegu, egiten dituzten funtzioen eta beren eragin-eremuaren arabera:

- **Madril eta Bartzelona hiri globalak dira.** Munduko ekonomia-gune nagusiekin lotuta daude. Horretaz gainera, bertan daude zerbitzu espezializatuenak eta teknologia-jarduera aurreratuenak. Oso eragin politiko, ekonomiko eta kultural handia dute herrialdean, zalantzarik gabe.
- Horien azpian, beste **hiri nazional** handi batzuk daude: Valentzia, Bilbo, Zaragoza, Sevilla eta Málaga. Hiri horiek ospe nabaria dute nazioartean, baina ez Madrilek eta Bartzelonak bezain beste.
- Maila bat beherago, **eskualdeetako hiriguneak** daude. Hiri handiekin lotuta daude, eta zerbitzu espezializatuak ematen dizkiete beren probintziei eta autonomia-erkidegoei. Horien adibide dira Donostia, Oviedo, Santiago de Compostela, Valladolid, Alacant, Murtzia, Palma, Cádiz eta Santa Cruz Tenerifekoa.
- Hurrengo mailan, **probintzia-hiriburuak eta beste hiri ertain batzuk** daude, hala nola Gijón eta Jerez de la Frontera.
- Eta horien azpian, **hiri txikiak eta eskualdeko hiri nagusiak** daude, hain zuzen ere. Hiri horiek oinarritzko zerbitzuak ematen dizkiete lurralde txikiagoei.



13 INTERPRETATU MAPA.

- Identifikatu Espainiako hiri-sistemaren barruan bereizten diren azpisisistemak. Zein dira azpisisistema bakoitzaren hiri nagusiak? Non kokatzen dira hiri-hierarkian?
- Non biltzen dira hirigune nagusiak, Penintsularen barnealdean ala itsasertzean? Zure ustez, zergatik da hori horrela?
- Zer lurralde daude azpisisistema horietatik kanpo? Zer ondorio ditu horrek?



14 LABURTU FUNTSEZKOA. Kopiatu eta osatu taula hau:

Hiri-eremua		
Hiria	Ezaugarri bereizgarriak	• ... • ... • ...
	Funtzioak	...
	Barne-egitura	• Funtzioen arabera: • Europan, bilakaera historikoaren arabera:
	Erronka handiak	...
Hiri-eremuaren antolamendua	Eremuak	• ... • ... • ...
	Hiri barreiatua	• Definizioa: • Faktoreak:
Hiritartze-prozesua	Herrialde garatuak	...
	Suspertzen eta garatzen ari diren herrialdeak	...
Hiri-sarea	Mundu mailakoa	...
	Nazionala	...

Kontzeptuak

15 Gauza bera al dira hiri-eremua eta hiria? Azaldu.

16 Definitu:

- Metropoli-barrutia
- CBD
- Megahiria
- Hiri globala

Prozesuak

17 Azaldu:


- Nola antolatzen du hiriguneak hiri-eremua.
- Espainiako hiritartze-prozesua.

Mapak eta grafikoak

18 Azaldu zer ezaugarri aurkezten dituen Valentzia hiria-ren plano honek (eskuinean) zonalde bakoitzean eta esan zer funtzio edo jarduerak aurki ditzakegun bertan.



19 Aztertu grafiko hau eta erantzun galderei:



- Nolakoa izan da munduko hiritartze-prozesuaren bilakaera?
- Zer-nolako herrialdeetan hazi da gehien hirietako biztanleria? Zure ustez, zergatik?
- Herrialde horiek al dira gaur egungo hiritartuenak?

Atlasarekin lanean

20 Kotsultatu Espainiako hirien mapa. Sailkatu hierarkiaren arabera.

MOTA	BIZTANLE KOPURUA	HIRIAK

KONPROMETITUAK

Hirietako marjinaltasuna

Herrialde garatuak hirietan ere badaude auzo pobreak. Auzo horietan, segregazioa eta marjinazioa gertatzen dira. Frantzian, **banlieue** deritze auzo horiei.

Banlieue direlakoak xx. mendeko 60ko urteetan sortu ziren. Garai hartan, auzoak eraiki zituzten hiri inguruan. Auzo horietan, eraikuntza-bloke handiak eraiki zituzten, Frantziara lan egitera joaten ziren atzerriko etorkinei egoitza emateko. Etorkin horiek ekonomia-hazkunde handi batek bultzatuta joan ziren Frantziara, hain zuzen. Zerbitzurik eza eta biztanleria-dentsitate handia dela eta, auzo horietako biztanle askok hiriko beste auzo batzuetara jo zuten, errenta-maila jakin bat lortu zutenean.

Prozesu horrek emaitza hauek izan zituen:

- Auzo horietako biztanleria gero eta pobreagoa bilakatzea.
- Eraikuntzak eta etxebizitzak hondatzea.
- Behar adina zerbitzu ez izatea.
- Gizarte-arazoak pilatzea. Auzo horietan, biztanleen kopuru handi bat dago langabezia.



21 Zeri esaten zaie *banlieue*? Nola sortu ziren? Zergatik dira gatazka-iturri?

22 IKT. 2005ean, *banlieue*ko gazteek matxinada bat egin zuten. Bilatu informazioa beheko helbideetan eta idatzi albiste bat. Albiste horretan, azaldu zer gertatu zen, zergatik gertatu zen eta zer ondorio izan zituen.

- http://elpais.com/diario/2006/06/04/internacional/1149372001_850215.html
- http://elpais.com/elpais/2013/06/27/eps/1372354945_948775.html


23 ZEU EKINTZAILE. Imaginatu zure udalerriko alkatea zarela. Zure ustez, zer arazo konpondu behar dira? Hausnartu horri buruz.

- Ordenatu arazoak, konpontzeko premiaren arabera.
- Proposatu neurri errealistak arazoak mugatzeko edo konpontzeko.

Honen antzeko taula bat bete dezakezu:

ARAZOA	LEHENTASUNA	NEURRIAK


EBATZI KASU PRAKTIKO BAT. Megahiri baten hazkundera: Lagos (Nigeria)



19. Lagosen hiri-zabalkundera 1900etik 2011ra bitartean.

Lagoseko biztanleriaren bilakaera

Pertsonak milioitan



Lagos da hiri-hazkunde handiena duen Afrikako hirietako bat. Portu-hiri bat da, eta Nigeriaren ekonomiaren erdigunea. Horrek barnealdeko landa-biztanleria erakartzen du; izan ere, landan, errenta-mailak askoz txikiagoak dira.

Egunero, 2.000 pertsona inguru iristen dira Lagosera, eta pertsona horiek bizileku bat aurkitu behar dute. Askok ez dute baliabiderik bizileku duin bat eskuratzeko, eta *slum* batean bizi behar dute, edo kasurik okerreanean, kalean, «etxegabe» bilakatuta.

Lagoseko biztanleriaren % 70 nolanahi eraikitako auzoetan edo *slum*etan bizi da. Auzo horietako asko gabarren gainean edo «ur gainera etxeetan» daude eraikita. Bertako biztanleek uholde tropikal ugari aurre egin behar izaten diete.

24 Aztertu dokumentuak binaka.

- Zergatik hartzen da Lagos megahirizat?
- Noiz bizkortu zen hazkundera?
- Zuen ustez, aldatu egingo al da joera datozen urteetan? Zergatik?
- Iragarpenen arabera, zein izango da biztanleria 2015ean?



25 Erreparatu Lagosen hiri-paisaiari Google Maps edo Bing Maps bidez.

- Nola deskribatuko zenukete hiria?
- Eraikuntzei eta horien kalitateari dagokienez, homogeneoa al da hiria? Zer erakusten du?

Mundua satellite batetik

Estatu Batuetako Espazio Agentziak (ingelesezko NASA siglekin ezagunagoa denak) irudi asko jartzen ditu denon eskura, Internet bidez. Irudi horiek NASAko astronautek eta sateliteek hartzen dituzte, eta baliagarriak dira gure planeta hobeto ezagutzeko. Horretaz gainera, irudi horiek orobat dira baliagarriak zientzialariek aztertu ditzaten eta


natura-hondamendiak iragar ditzaten, ingurumen-eragina neur dezaten, etab.

Worldview, hain zuzen ere, NASAREN ikustaila bat da, eta aukera ematen digu irudiak konparatzeko eta analisiak egiteko. Helbide honetan kontsulta dezakezue: <http://earthdata.nasa.gov/labs/worldview/>.

Worldviewk geruzak (*layers*, ingelesez) erabiltzen ditu. Geruzak gehitu eta irudiak konpara ditzakezue. Horri esker, aukera izango duzue gure planeta hobeto ulertzeko eta lurralde-azterketa errazak egiteko.

Egin klik ikonoan eta gozatu. Hasteko, hiri argiztatuak gauez ikustea gomendatzen dizuegu: **Earth at Night**.

Aukera duzue estekatzeko eta irudiak deskargatzeko, proiektzioa aldatzeko, etab.



Halaber, aukeratu datak, denboran zer aldaketa gertatzen diren ikusteko.



26 IKT. Kontsultatu Earth at Night, Worldviewn.

- Planetako zer eremu dira argiztatuenak? Zer adierazten dute argiek?
- Zer kontinentek dute argi gutxien? Non biltzen dira argiak, barnealdean ala kostaldean?
- Ba al dago loturarik eremu jendeztatuenen eta argiztatuenen artean?
- Aldatu proiektzioa. Zer aldaketa ikusten dituzue Lurra adierazteko moduan?

27 Bilatu NASAko Lurraren Behatokian Espainiako eta ezagutu nahiko zenituzketen beste leku batzuetako irudiak. Egin iruzkinak irudiei buruz.



GOMENDIOAK

Liburu bat:

Dominique LAPIERRE, *The City of Joy* (Pozaren hiria), 1985.

Film bat:

Slumdog Millionaire, Danny BOYLE (zuzendaria), 2008.

Webgunea:

<http://earthobservatory.nasa.gov/>.

Webgune horretan, hainbat irudi eta zenbait mapa global ikus ditzakezu. Harpidetzeko, egin klik «*Subscribe today*» estekan eta doan jasoko dituzu posta elektronikoko bidez NASAko irudi onenak.